

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2004KO IRAILAREN HOGEITA HAMARREAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaian, bi mila eta laugarren urteko irailaren hogeita hamarrean, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta era onez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA (2004-06-24; 2004-07-22 ETA 2004-07-22 errauskailua)

Osoko bilkura eratu ondoren, Alkate Lehendakari andreak zera galdetu die zinegotziei, onarpenera aurkeztutako aktetan aldaketa edo zuzenketaren bat egin nahi ote duten.

IZUSTARRI taldeak zehaztaper hau egin dio 2004ko uztailearen 22ko bilkurako aktari (errauskailuari buruzkoa):

"Europak sortutako hondakinen %20 erraustera behartzen du" dioen lekuan "Europak sortutako hondakinen, gutxienez, %40 birziklatzera behartzen du" esan behar du.

Azkenik, EB-IU taldeak hiru zehaztaper egin ditu:

1.- 2004 uztailearen 22ko aktan ez da jasotzen EB-IU taldeak irakurritako testua. Talde horren ordezkariak eskatu du testu hori aktan jasotzeko, ez baitzen Idazkaritzan eman.

2004ko uztailearen 21, asteazkena

Europako biztanleek ingurumen inpaktuko azterketetan parte har dezakete gaurtik aurrera; izan ere, gaur jarri da indarrean herritarrei herri lanen —esaterako, egitekoak diren errepideen ibilbideak edo udaletan sortutako hondakinen kudeaketa— ingurumen inpaktuko azterketetan parte hartzen uzten dien zuzentarau berria. Arau berri hori lurraldearen antolamenduaren, uren kudeaketaren, turismoaren, industriaren eta energiaren alorretan aplikatuko da. Horrenbestez, erakunde publikoren batek arau horren eraginpeko lanen bat egin nahi badu —esaterako, metro linea berri bat—, txosten berezi bat egin beharko du, eta jendaurrean erakutsi. Agiri horrek egitasmo berriek biodibertsitatean, faunan, floran, eguzkian, uretan, faktore klimatikoetan, paisaian eta osasun publikoan izango duten inpaktua zehaztu, azaldu eta neurtu beharko du, zuzentarau berriak araututakoarekin bat etorri. Horrez gain, egitasmoak behin betiko onartu baino lehen, agintariek aintzat hartu beharko dituzte herritarrek horiei buruz dituzten iritziak. Alabaina, Europako araudi berria estatu kideen legedietan sartzeko Europar Batasunak ezarri zuen epea igarota, Europar Batasuneko kide diren hogeita bost estatuetatik bederatzi hauek soilik egin dute: Ziprek, Txekiar Errepublikak, Danimarkak, Irlandak, Letoniak, Lituaniak, Maltak, Esloveniak eta Erresuma Batuak. Gainerako herrialdeek jakinarazi dute araudi berria beren legedietan sartzeko lanak bide onean doazela. Europar Batasuneko araudi berri hori —ingurumenaren azterketa estrategikoaren zuzentaraua deritzotena (ESE, ingelesez)— indarrean sartu aurretik, EBk bazuen horri buruzko beste arau bat; zenbait proiektu publiko eta pribaturen ingurumen inpaktua aztertzeke obligazioa arautzekoa. Hau da zuzentarau berriak dakarren aldaketa nagusia: herritarrek lehenago aztertuko dituzte egitasmoen inpaktuak. Ondorioz, Bruselak emandako azalpenen arabera, herritarrek parte hartze handiagoa izango dute erabakietan, eta irtenbide bat baino gehiago aurreikusi beharko dira sistematikoki. Halaber, ESE arauak egitasmoen eta programen jarraipena egin behar dela zehazten du, gerta daitezkeen eragin kaltegarriak hauteman eta zuzentzeko.

2.- 2004ko uztailearen 22ko aktaren 2. puntuan —“Kirol Portua S.A: EB –IU, kontseilari izendapen proposamena”—, akats bat dela medio, proposatutako kontseilariaren izena Josu dela jartzen du, eta, horren ordez, Jon jarri behar du.

3.- Azkenik, hark ordezkatzeko duen alderdi politikoak aurrerantzean izen ofizial hau izango duela adierazi du: EZKER BATUA - BERDEAK.

Bozkatzera deitu ondoren, osoko bilkurara bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dituzte 2004-06-24ko akta eta 2004-07-22ko bi aktak (bigarrena errauskailuari buruzkoa), adierazitako zehaztapenak jasota.

2. – ZUMAIAKO UDALEKO IZAERA PERTSONALEKO DATUAK DITUZTEN FITXEROEN ERATZE, ALDATZE ETA INDARGABETZEARI BURUZKO ERREGLAMENDUAREN HASERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Jakinazten da datu pertsonalen tratamenduari buruzko lehen araua 1992koa dela, urte horretan onartu baitzen Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatuari buruzko Lege Organikoa.

Zumaiako Udalak, lege horretan araututakoari jarraituz, Madrilen dagoen Datuak Babesteko Agentzian inskribatu zuen babes berezia behar zuten datuak zituzten fitxategien zerrenda.

Geroago, 1999an, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa onartu zen. Lege horrek epe batzuk finkatu zituen fitxategiak araudi berrira egokitzeko.

Epe horiek igaro ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzak onartu zituen udalek fitxategiak legeak araututakoari egokitu zituzten.

Zumaiako Udalak laguntza eskatu zuen, eta eman egin zitzaion. Enpresa bat kontratatu zen lan hori egiteko.

Udaleko sailetako arduradunekin hitz egin ondoren, Zumaiako Udalak erregelamendu bat prestatu du datu pertsonalak dituzten fitxategiak sortu, aldatu eta deuseztatzeko.

Erregelamenduak 26 fitxategi aipatzen ditu, eta guztiek eskema berari jarraitzen diote: fitxategiaren izena, deskripzioa, xedea, datuak biltzeko prozedura, datuen lagapena, fitxategiaren arduraduna, segurtasun neurriak, etab.

Hauek dira fitxategi horietako batzuk: ludoteka, gaztetxola, hilerria, argiketak, biztanleen udal errolda, errolda fiskalak, etxez etxeko laguntza, adin txikikoentzako laguntza, etab.

Gerora, datuen segurtasunari buruzko arau bat zehaztu beharko da, eskaera orriei lege oharrak erantsi, etab.

Erregelamenduak Zerbitzu Batzordearen aldeko irizpena jaso du, eta haren hasierako onarpena eta jendaurreko erakustaldia onartzea dira tramitazioaren hurrengo urratsak.

Gaia eztabaidatu ondoren, EB-Berdeak alderdiko ordezkariak adierazi du abstenitu egingo dela, behin eta berriz gertatzen zaion moduan, oraingoan ere informazioa azken orduan iritsi zaiolako.

Bozketa egitera deituta, udalbatza osatzen duten izatezko eta zuzenbidezko hamahiru kideetatik hamabiren aldeko botoz (EAJko bost, IZUSTARRIko hiru, EAko bi eta PSOEko bi), eta EB-Berdeak taldeko ordezkari bakarraren abstentziaz, honako hau

ERABAKI DA

1.- Hasierako onarpena ematea datu pertsonalak dituzten fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta deuseztatzeko Zumaiako Udaleko erregelamenduari.

2.- Epe bat irekitzea, gutxienez 30 egunekoa, jendaurreko erakustaldia egiteko eta interesatuei entzuteko, Erregelamendu honi dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Zabalduko den epearen helburua erreklamazioak eta iradokizunak egiteko aukera ematea da.

3.- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, erabaki hau behin betiko onartutzat joko da.

**3.- GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALTASUN PROGRAMA
ETA PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN
ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.**

Jakinarazten da Hirigintza Sailak lan handia duenez, lan horri guztiari aurre egiteko plantilla organikoa eta lan postuen zerrenda aldatzea komeni dela.

Gaur egun, lan horri aurre egiteko, Zumaiako Udaleko Plantilla Organikoan eta Lanpostuen Zerrendan (otsailaren 13ko GAO, 29. zenbakia) administrari laguntzaile postu bat aurreikusten da lanaldiaren %55ean.

Sailaren antolamendua eta finkatutako helburuak lortzeko eskura dituen baliabideak aztertu ondoren, administrari laguntzaileak egiten duen lanaldia nahikoa ez dela ikusi da.

OTEIC taldeak bere garaian egin zuen antolamendu azterketak berretsi egiten du adierazitakoa, eta agerian uzten du plantilla handitzeko beharra; hau da, administrari laguntzailea lanaldi osoz aritzeko beharra.

Proposamen honek aipatutako langilearen oniritzia eta Pertsonaleko Batzordearen aldeko irizpena ditu.

Indarrean dagoen legediak araututakoari jarraituz (Idazkaritzak emandako txostena), bidezkoa da:

.-Udalbatzaren osoko bilkurak Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa eta Udaleko Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea.

.- Jendaurreko erakustaldia egitea 15 egunez. Epe horretan erreklamazioren bat aurkeztuko balitz, ebatzea, eta erabakia behin betiko onartzea.

.- Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda GAOn argitaratzea.

Bozketa egitera deituta, Udalbatza osatzen duten izatezko eta zuzenbidezko hamahiru kideek honako hau ERABAKI DUTE, aho batez:

1.- Hasierako onarpena ematea Udalaren 2004ko Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketari eta GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMARI.

Honako hau da aldaketa: Hirigintza Sailari atxikita dagoen administrari laguntzaile plazak duen lanaldia %55etik %100era handitzea, eta plaza handitze hori administrari laguntzaile plaza %55ean betetzen duen titularrari esleitzea.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta jendaurreko erakustaldi epe bat irekitzea 15 egunez, interesatuek onartutako aldaketak aztertu eta, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150.1 artikuluekin bat etorritik, egoki deritzoten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aldaketa behin betiko onartutzat joko da, eta ez da beste erabaki bat hartzeko obligaziorik izango. Erreklamazioren bat aurkeztuko balitz, Udalbatzarrak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

3.- 2004ko ekitaldiko Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa behin betiko onartu ondoren, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150.3 artikulua araututakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.- 2. SEKTOREKO PLAN PARTZIALEAN BARNERATUTAKO EU 1 PUNTANUETA DESJABETZAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA, BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA AURKEZTUTAKO OHARPEA EBATZIZ ETA E.J.-RI PRESAZKO OKUPAZIOA DEKLARATZEKO ESKATZEA.

04-04-01eko Udalbatzaren osoko bilkuran desjabetze espedienteari hasiera ematea erabaki zen, **2. SEKTOREKO PLAN PARTZIALARI DAGOKION PUNTANUETA 1 EU-AN** desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda onartuz.

Jendaurreko erakustaldi epea ireki zen erabaki horri zegozkion iragarkiak Udaleko Iragarki Oholean jarritik, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2004-06-29koa, 122. zenbakia) argitaratuz, probintzian zabalpen handiena duen egunkarian argitaratuz (DV 2004-06-16koa), eta interesatuei pertsonalki jakinaraziz. Epe horretan, alegazio hau aurkeztu da denborazko eta formazko baldintza guztiak betez (alegaziolari buruzko txostenak eta horien araberrako ebazpen proposamena eransten dira):

ALEGAZIO EGILEA (Sarrera data) (2004-07-16)	ZIOAK	EBAZPEN PROPOSAMENA
<p>JON ETXABE JAUREGI (Abokatua, Juan Mari Etxabe Galarraga eta beste pertsona batzuk ordezkatur).</p>	<p>1.- Adierazten du EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak 2003 maiatzaren 12an emandako epaia irmoa dela, eta Udalak hartu duen bidea abusuzkoa eta legez kontrakoa dela.</p> <p>2.- Beste behin adierazten diote Zumaia Lantzen S.A enpresari zein den, haien ustez, bidezko prezioa. Zumaia Lantzen S.A enpresarekin harremanetan jartzeko eskatzen diote udalari.</p> <p>3.- Halaber, adierazten dugu 2004-06-24an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako zerrendan sagarrondoak, lau intxaurrondoak, lizarra, egurrezko txabola eta bere garaian desjabetu zitzaizkigun gainerako ondasunak ez direla agertzen, eta beste behin adierazten dugu ez gaudela ados Udal honek proposatu duen 228.88 euroko zenbatekoarekin. (Balioespen teknikoa eransten dute)</p>	<p>1.- EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak hau erabaki zuen epaian: Udal Ondarea osatzeko Lurzoru Erreserbako Proiektua ez zetorrela bat ordenamendu juridikoarekin.</p> <p>Arau Subsidiarioetako Puntanuetan 2. Sektorean egindako aldaketak eta Zumaia Arau Subsidiarioen Berrikuspenak honakoa erabaki zuten: exekuzio sistema desjabetzea izatea.</p> <p>Lehen, desjabetze kausa Udal Ondarea osatzeko Lurzoru Erreserbako Proiektua zen, baina, epaiaren ondorioz, orain udalak berariaz egindako udal planeamendua da.</p> <p>2.- Desjabetze prozedura ondasunen eta eskubideen zerrenda onartuz eta jendaurreko erakusketako 15 eguneko epea zabalduz hasi zen. Erakusketan epe hori erasandako eskubideen titularrek izan zitezkeen akatsak zuzentzeko beharrezkoak diren datuak aurkez zitzaten zabaldu zen, eta, ondorioz, ez da prozesuko une egokia interesatuek eskubideak eskuratu ahal izateari prezioa jartzeko.</p> <p>3.- 2004-06-29an GAO n argitaratutako ondasun eta eskubideen zerrendan hau jasotzen da: alegazio egileari R1 finkan dagokion portzentajea, 2. sektorearen birpartzelazioa egin ondoren. Portzentaje hori hark jarritako finka osorik balioetsi ondoren kalkulatu da; hau da, hark aipatzen dituen elementu guztiak balioetsi ondoren: sagarrondoak, lau intxaurrondoak, lizarra, egurrezko txabola eta gainerakoak.</p> <p>EBAZPEN PROPOSAMENA: ALEGAZIOA ATZERA BOTATZEA</p>

Bozketa egitera deituta, udalbatza osatzen duten izatezko eta zuzenbidezko hamahiru kideetatik hamabiren aldeko botoz, (EAJko bost, IZUSTARRIko hiru, EAko bi eta PSOEko bi) eta EB-Berdeak taldeko ordezkari bakarraren abstentzioz, honako hau

ERABAKI DA

LEHENA: 04-06-29ko GAO n argitaratutako ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzea, eta atzera botatzea denborazko

eta formazko baldintzak betez aurkeztutako alegazioa, erabakiaren azalpeneko zatian jasotako taulan eta erantsitako txostenean adierazitakoarekin bat etorritik.

BIGARRENA: PRESAZKO OKUPAZIOA DEKLARATZEKO eskatzea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari.

HIRUGARRENA: Erabaki hau alegazio egileari jakinaraztea, legezko eran.

5- ESKARI – GALDERAK.-

Alkate-lehendakari andreak galdetu du zinegotziren batek galderarik edo eskaririk egin nahi ote duen.

IZUSTARRI taldekoek Gobernu Batzordeko aktak lehenago jasotzea eskatzen dute, eta gogorarazten dute martxoko eta apirilko aktak ez dituztela jaso.

PSOE taldekoek Gobernu Batzordeko aktak ez dituztela jasotzen adierazten dute.

Idazkariak erantzun du aktak udalbatzaren osoko bilkuren deialdiekin batera banatzen direla, eta, adierazitakoa aintzat hartuz, horiek lehenago banatzen eta guztiei helarazten saiatuko dela.

IZUSTARRI taldeak galdetzen du GALVANIZADOS OLAIZOLA enpresaren badaezpadako itxiera beroan egindako galbanizazioari dagokion soilik, ala enpresaren jarduera orori dagokion.

Itxiera jarduera nagusiari dagokiola erantzun zaio; hau da, beroan egindako galbanizazioari, hura baita arriskutsua.

PSOE alderdiko ordezkariak udaletxea berritu eta handitzeko lanei buruz galdetu dute, eta udalbatzarrak non egingo diren. Halaber, interpretazio zentroari buruz galdetzen dute.

Alkate andreak erantzun du lanak bulego orokorrak Bidasoa kaleko lokaletara eta Gofi dendaren ondoan alokatutako lokalera eramatean hasiko direla. Udalbatzako osoko bilkurak Foronda Kultur Etxean egingo dira.

Interpretazio zentroari dagokionez, igogailuarena lotzeko dago oraindik, baina Orona enpresarekin bildu gara, eta arazoa konpontzeko bidean dagoela dirudi.

Zentroaren kudeaketari dagokionez, horri dagozkion baldintza orriak idazten ari gara.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat eman du, gaueko zortziak eta hamabost direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK .-

IDAZKARIAK.-